



Osasuna Politika Guztietan

BATZORDE TEKNIKOA



Txosten
sektoriala **2020**

Hezkuntza

2022ko otsailaren 7an



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

CURRICULUM ESPARRUA

Aurreko memorietan Curriculum Dekretuek zeharkako eta diziplinazko oinarrizko gaitasunak garatuz lantzen diren ohitura osasungarriei buruzko helburuak eta edukiak jasotzen dituztela aipatzen zen (zientzien eta gorputz-hezkuntzaren arloak/ikasgaiak). Curriculumaren esparruan Osasun Saileko ekarpenak hartu dira barne, adinez txikikoak eta alkoholaren programari arreta berezia emanez.

Era berean, azpimarratu behar da ikastetxe bakoitzak, bere autonomia pedagogikoaren esparruan, ohitura osasungarrien inguruko programak ezartzen dituela bere tutoretza-ekintza planetan, eta tartean, Udalen bitartez jasotzen dituzten era askotako eskaintzak.

2020ko ikasturtean zehar, hain zuen ere, ondorengo ekintzak nabarmen daitezke:

- **PEG1**-ren barruan (Prestakuntza Ekimen Globala), gaitasun zientifikoaren prestakuntza-moduluak curriculumeko hainbat elementu garatzen ditu, besteak beste ohitura osasungarriei buruzko gaiak (Natur

¹ Zer da?

Hezkuntza Sailaren proposamen hau, Oinarrizko Hezkuntzako mailak (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) ematen dituzten ikastetxe publiko guztiei zuzenduta dago.

Helburua:

2017-2018, 2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteetan garatuko den Prestakuntza Ekimen Globalaren helburua ikasleen gaitasunen garapen-maila eta, ondorioz, emaitzak, hobetzea da, bai eta ikastetxe guztietan kompetentzien garapenean eta ebaluazioan oinarritutako irakaste- eta ikaste-prozesuak gauzatzeko beharrezkoak diren eskola-giroa eta baldintzak bermatzea ere.

Hori guztia zenbait jarduera-eremu landuz egingo da, erantzuna emateko sistemari buruzko txosten orokorretan (PISA, diagnostiko-ebaluazioak), eskola-emaitzetan, Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planean eta ikastetxe bakoitzaren testuinguruan hautemandako premiei.

Zientzien curriculuma Lehen Hezkuntzan, "Gizakia eta osasuna" blokea, eta DBHko 3. mailako Biologia eta Geologiako curriculumua.

- Berritzegune Nagusian eta Biologia eta Geologia arloan osasunari buruzko proiektuak garatzen dituzten material didaktikoak sustatzea. Adibidez, DBHko 3. mailarako **"HIGIENEA ETA OSASUNA EGUNERAKO BIZITZAN"** unitatea.
- Azpimarratzekoa da **E-Bug Proiektu europarraren** materiala; 40 hizkuntzatan aurki daiteke, baita euskaraz ere, e-Bug-en webgune ofizialean (<https://e-bug.eu/>).
- Gainera, Berritzeguneko kide batzuek irakasleei laguntzeko material batzuk egin genituen etxean, COVID-19a eta osasuna ardatz hartuta. Hemen daude eskuragarri:
<https://sites.google.com/view/covid19dbh/p%C3%A1gina-principal>
- Bizikasi ekimenak osasun emozionala sustatzeko [material didaktikoak eskaintzen ditu](#), hezkuntza emozionalaren inguruko lan sistematikoa ahalbidetzen duen lan-sekuentzia planteatuz. Ikasmaterial hori gaitasunaren elementuetan, elkarrekin bizitzen eta ikasten ikastean eta izaten ikasteko gaitasunean oinarritzen da.
- 2020ko martxoaren 14ko osasun-larrialdiko egoerarekin lotuta, Bizikasik curriculum-proposamen bat eskaintzen du, bi jardueraremutan antolatua:
 - Osasun-larrialdia ezartzearen ondoriozko egoerari erantzunez, ikasle guztien ongizate sozio-emozionalaren eta [motibazio-ongizatearen mailari](#) buruzko diagnostikoa egitea, eta hautemandako beharren araberrako orientazioa eta laguntza eskaintzea.
 - Jasotako informaziotik abiatuta, eta alarma-egoeraren ondoriozko esperientziak eta bizipenak gogora ekarriz, [berreraikuntza sozio-afektiboan](#) laguntzen duten sentimenduak eta emozioak identifikatzea.
Horrekin batera, bizi izandako esperientziatik eskuratutako ikaskuntza eta garapen pertsonaleko estrategiak identifikatzea eta baloratzea, ziurgabetasun-egoeretan eta elkar zaintzeko egoeretan erabiltzeko.

Jarduera fisikoa sustatzeari dagokionez, Gorputz Hezkuntzako irakasleek jarduera fisikoa sustatzen dute ikasleen artean, bai eskola-orduetan, bai aisialdi-irteeretan. Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetarako 2019-2020 ikasturteko zirkularrak honako hau zehazten du gorputz-hezkuntzari dagokionez:

- Lehen Hezkuntza: Gutxienez 9 ordu. Erreferentziazko ordutegia: 10,5 ordu. 1. maila: 2 ordu; 2. maila: 2 ordu; 3. maila: 2 ordu; 4. maila: 1,5 ordu; 5. maila: 1,5 ordu, eta 6. maila: 1,5 ordu.
- Bigarren Hezkuntza: Gutxienez 8 ordu. DBHko 1. maila: 2 ordu; DBHko 2. maila: 2 ordu; DBHko 3. maila: 2 ordu; DBHko 4. maila: 2 ordu.

Berritzegune Nagusian Gorputz Hezkuntzako aholkulariaren irudiari eutsi zaio, eta horren funtzioak, besteak beste, Gorputz Hezkuntzako irakasleen etengabeko prestakuntza dinamizatzea eta gainerako berritzeguneekin koordinatzea da:

- “Physically Active Learning” (PAL) jornada online: Mugitu eta Ikasi.
- <http://www.gorputzheziketa.hezkuntza.net/eu/baliabideak>
Gorputz Hezkuntzarekin zerikusia duten baliabideak argitaratzeko.
- <https://www.amarauna.euskadi.eus/baliabideak?search=gorputz%20hezkuntza&rdf:type=Recurso> Gorputz Hezkuntzarekin zerikusia duten hainbat baliabide kontsultatzeko eta argitaratzeko.

Aldi berean, zonako berritzeguneetan honako ikastaro hauek dinamizatu dira:

JARDUERA	PARTE-HARTZAILEAK
YOGA, ACROYOGA ETA MINDFULNESS. APLIKAZIO METODOLOGIKOA LEHEN HEZKUNTZAKO GORPUTZ HEZIKETA SAIOETAN.	25
NEURO HEZIKETA FISIKOA: MOTRIZITATEA IKASKUNTZA ETA GARAPEN PERTSONALERAKO ZERBITZUAN	25
AKROSPORTETIK ANTZERKI MUSIKALERA. GORPUTZ ADIERAZPENA JARDUERAK SORTU, GARATU ETA EBALUATU IKASLEEN TREBEZIAK SUSTATUZ	30
IKASKUNTZA KOOPERATIBOA GORPUTZ HEZIKETAN	26
GORPUTZALDIAK PROIEKTUAREN AURKEZPENA	12
GORPUTZ HEZKUNTZA LAN TALDEA	14
GORPUTZ HEZIKETA MINTEGIA	12
GORPUTZ HEZKUNTZA MINTEGIA (LH)	11
GORPUTZ HEZKUNTZA MINTEGIA (BH)	14
GORPUTZ HEZIKETA MINTEGIA	36
OSASUNA ETA ESKOLA (LEHEN HEZKUNTZA)	21
OSASUNA ETA ESKOLA (BIGARREN HEZKUNTZA)	11

Eskola-eremutik jarduera fisikoa sustatzeko beste ekimen batzuk:

- ACEX, Hezkuntza Sailaren programa, lehiarik gabeko eskolaz kanpoko kirol jarduerak sustatzeko.
- Gorputz-hezkuntzako klaseetan inklusibitatearen sustatzailearen figura sartzea: Kirolenek aholkularitza eta sustapen-lanak egiten ditu, desgaitasunen bat duten ikasleen parte-hartzea errazteko (berritzeguneetako prestakuntza, esku-hartzeak eta berariazko ikasleen jarraipena).

-
- Hauspoa proiektutik (bigarren hezkuntzako 83 ikastetxe) jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak eskaintzen eta antolatzen dira. Ikastetxe gehienek jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak eskaintzen dituzte:
 - Gorputz-hezkuntza, jarduera fisiko kooperatiboak.
 - Gorputz-adierazpena, Breakdance, dantza modernoak, funkya, erlaxazioa.
 - Antzerki tailerra, bizikleta, defentsa pertsonala, parkourra, xakea, piragua...
 - Mugimentek proposatutako hainbat ikerketatan laguntzea Osasun Sailarekin, sedentarismo-mailari eta jarduera fisikoaren mailari buruzko datuak lortzeko 6-17 urteko ikasleen artean:
 - Global Matrix 4.0.
 - Azelerometria azterketa komunitateko 1.111 ikaslerengan.
 - Osasunarekin lotutako egoera fisikoa zaintzea Gorputz Hezkuntzako irakasleen bidez.

“Physically Active Learning” jardunaldia, ikasten den bitartean bizitza aktiboagoa sustatzen duen irakaskuntza-metodologia bati buruzkoa. Ekimen horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Osasun, Hezkuntza eta Kultura sailak elkarrekin egin beharreko bide baten lehen urratsak egiten hasi dira, modu koordinatuan. Jardunaldi horretan, beren testuingurua azaldu ondoren (eskola aktiboak), matematika eta ingelesa modu aktiboan irakasteko moduaren erakustaldi praktikoa eskaintzen da, bai eta ikastetxe baten ohiko irakaskuntza-garapenaren barruan jarduera fisikoaren sustapenean eragiten duten beste alderdi batzuk ere, hala nola joan-etorri aktiboak, aisialdi aktiboak eta abar.

Guraso-elkartek antolatutako eskolaz kanpoko jarduerak ere aipa daitezke: multikirola, jolas kooperatiboa, psikomotrizitatea, saskibaloia, futbola, patinajea, esku pilota, gimnasia erritmikoa. Horiek egiteko, urteko diru-laguntza deialdia dute.

GAITUZ SPORT-EN LANKIDETZA

Erakunde² horrekiko lankidetzari eusten zaio, jardunaldiaren zati batean Kirolene ikastetxeko (Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoa) irakasle bat liberatuz, Berritzeguneekin batera eta Berritzegune Nagusiarekin (Eskola inklusiboa: HLBP eta Gorputz Hezkuntza), ikastetxeetan kirolari lotutako prestakuntza-jarduerak bultzatzen, aipatutako helburuei erantzunez. Zentzu honetan, hiru aholkularitza- eta sustapen-ataza egiten dira edozein ezgaitasun duten ikasleen parte-hartzea ikastetxeetan proposatzen diren jardueretan errazteko (prestakuntza Berritzeguneetan, esku-hartzeak eta ikasleen berariazko jarraipena).

Zonaldeetako berritzeguneetako prestakuntzak:

JARDUERA	PARTE-HARTZAILEAK
GORPUTZ HEZKUNTZA INKLUSIBOA DESGAITASUNA DUTEN IKASLEENTZAT	20
HEZKUNTZA FISIkoa DESGAITASUNEN BAT DUTEN IKASLEEKIN ESKOLA INKLUSIBOAN	21
HEZKUNTZA FISIkoa DESGAITASUNEN BAT DUTEN IKASLEEKIN ESKOLA INKLUSIBOAN	20
GORPUTZ-HEZKUNTZA INKLUSIBOA DESGAITASUNEN BAT DUTEN IKASLEENTZAT	22
INKLUSIOA GORPUTZ-HEZKUNTZAN ETA KIROLEAN	21
INKLUSIBITATEA HEZIKETA FISIkoAN	20
HEZKUNTZA FISIkoa HEZKUNTZA BEHAR BEREZIAK DITUZTEN IKASLEENTZAT, IKUSPEGI INKLUSIBO BATETIK	24

² Gaituz Sport, Gorputz Hezkuntzaren arloan hezkuntza-behar bereziei alternatibak bideratzen dizkien eta aniztasunari kiroletik ekiten dion Programa da.

Helburu hauek ditu:

- Eskola-ingurunea sentikortzea, kirolaren bitartez aniztasunaren inguruko balio positiboak zabalduz, aniztasunarekiko gizarte tolerante eta sentiberago bat lortzeko.
- Gorputz Hezkuntza eta Jarduera Fisikoaren arloan estrategia integratzaile eta normalizatzaileen inguruan prestatzea eta ikastetxean ezgaitasuna duten pertsona-taldean kirol-jarduerak sustatzea.

Pandemia-egoerak zenbait egokitzapen egitea ekarri du: prestakuntza-eskaintza baliogabetzea, 10 pertsona baino gehiago elkartzea eta alderdi praktikoa egitea ezinezkoa delako.

Testuinguru horretan, aurreikusi gabeko jarduerak egin dira:

- Orientazio-eskaera zehatzei erantzutea.
- Balorazio funtzionalerako tresna bat egiten hasi gara, Desgaitasunaren Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena (FNS) jarduera fisikoaren praktikaren eta adierazpen motorraren testuinguruetara egokitzeko. Helburua da tresna estandarizatu eta homogeen bat izatea, desgaitasunen bat duen ikasle bakoitzaren abiapuntuko egoera ezagutzeko, bere gaitasun funtzionalei eta testuinguru pertsonalari dagokienez.

II. HEZKIDETZA-PLANA, BERDINTASUNAREN ETA TRATU ONAREN BIDEAN (2019-2023)

Berrikuntza Zuzendaritzak, Hezkuntza Ikuskaritzak, Emakundek, Hezkuntza Sailburuordetzako berdintasun-teknikariak eta laguntza-zerbitzuetako aholkulariek (berritzeguneak) osatzen duten batzorde teknikoa planaren garapena diseinatu eta horren jarraipena egiten ari da.

II. Hezkidetza Plana, Berdintasunaren eta Tratu Onaren Bidean (2019-2023)³ delakoak **berariaz lantzen du nerabeen eta gazteen arteko hezkuntza afektiboa eta sexuala, Osasun, Hezkuntza eta Gazteria sektoreen baterako parte hartzearekin**, 1.5 helburuaren (Genero-indarkeriaren aurkako prebentzio-programak hezkuntzaren eta komunitatearen eremuan) eta 5.4 helburuaren (Adingabeak eta alkohola programa) bidez: Jarrera osasungarriari buruzko gaitasunak eta edukiak eskola curriculumean sartzea.

Esan daiteke, plan horren babespean 2020an zehar eutsi egin zaiola ikastetxe publikoek eta itunpekoek 2020-2021 eta 2021-2022 ikasturteetarako hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko jarduera-proiektuak egiteko deialdiari. Deialdi honetan 50 ikastetxe publiko eta 11 itunpeko sartu dira, eta bi ikasturtetan zehar hezkidetza-proiektua diseinatu eta ezarriko dute.

³ http://www.euskadi.eus/web01-a3hbconv/es/contenidos/informacion/inn_convivencia_conv_positiva/es_def/index.shtml

DEIALDIA	13/14	14/15	15/16	16/17	17/18	18/19	19/20	20/21	GUZTIRA
IKASTETXE PUBLIKOAK	50	57	48	0	28	27	50	50	310
IKASTETXE PRIBATU/ HITZARTUAK	0	35	15	19	0	15	35	11	130
GUZTIRA	50	92	63	19	28	42	85	66	445

- Hezkuntza Sailburuordetzaren ikasturte hasierako ebazpenak dio ikastetxe guztietan berdintasuneko eta hezkidetzako ordezkaria izendatu behar dela, ikastetxeko ordezkari-organoren. Zonaldeko mintegietan parte hartzen duten ikastetxe gehienek hezkidetzako batzorde mistoak dituzte martxan.
- Aurreko ikasturteetan bezala, zonaldeko Berritzegune bakoitzean hezkidetzako arduradun bat dago. Halaber, II. Hezkidetzaren Plana garatzeko bi arduradun daude Berritzegune Nagusian. Hilero mintegi bat egin da zonaldeko berritzeguneekin. Berritzegune Nagusiko arduradunek materialak prestatu dituzte ikastetxeentzat, martxoaren 8rako eta maiatzaren 17rako genero-indarkeria desagerrarazteko.
- Hezkuntza Sailak irakasleentzat eskaintzen duen etengabeko prestakuntza-eskaintzan genero-ikuspegia ezarritako baremoekin kontuan hartzea mantentzen da.
- Egindako beste prestakuntza-jarduera batzuk 7 ikastaro izan dira, Prest_Gara programaren bidez, eta Emakunderekin (Nahiko eta Beldur Barik) lankidetzan.

PREST GARA 19-20	PLAZAK
HEZKUNTZA AFEKTIBO SEXUALA LANTZEN HAUR, LEHEN HEZKUNTZAN ETA BIGARREN HEZKUNTZAN	30
IKASTETXEKO ESPAZIOEN ERABILERAREN ETA ANTOLAMENDUAREN AZTERKETA GENERO IKUSPEGITIK ETAPA GUZTIETAN	35
GIZARTE ARLOAN OSATZEAN, EMAKUMEEN EKARPENEKIN	20
HEZKIDETZAN ALDE BUSTI	20
BERDINEN ARTEKO INDARKERIA PREBENITZEKO LANA: GATAZKEN ERALDAKETA	25
SARE SOZIALAK: BERDINEN ARTEKO TRATU ONAK ETA GENERO BERDINTASUNERAKO TRESNA	25
UMEZARO ETA NERABEZAROAREN AURKAKO INDARKERIA	25

INGURUGELA⁴

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren 2030erako Estrategiak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza eta Hezkuntza Sailek gidatutakoak, honako jarduera hauek markatzen ditu, besteak beste 1. xedean (Ekintzarako hezkuntza) eta JARDUERA-ILDOAN (IRAUNKORTASUNERAKO HEZKUZTZAREN ARLOAN ERAGILE DINAMIZATZAILE ETA BERRITZAILEEN ZEREGINA SUSTATZEA HEZKUNTZAREN HAINBAT ARLOTAN):

1. Ingurugela-Berritzegune lantalde bat sortzea, ikastetxeei aholkularitza emateko Heziberri 2020ren esparruan jasangarritasunerako hezkuntza hedatzeko.
2. "Eskolako 2030 Agenda" berria diseinatzea.
3. "Lanbide Heziketarako 2030 Agenda" berria diseinatzea.

⁴ **Ingurugelek** irakasleei eta ikastetxeei laguntzeko ekipamendu publikoen sarea osatzen dute, eta unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sisteman ingurumen-hezkuntzako planak eta programak koordinatzen dituzte.

Ingurugelaren 1. jarduera-ildoan (ikerketa eta esperimentazioa) Eskolako Agenda 2030 programa⁵ agertzen da. Unibertsitateaz kanpoko 445 ikastetxe daude konprometituta programa horretan. Programa horren barruan, ikastetxeak, oro har, Garapen Jasangarriko Helburuen (GJH) ezagutzara hurbildu dira aurten, eta, kasu batzuetan, GIH zehatz baten bidez:

- 12 GJH: Ekoizpen eta kontsumo jasangarria (28 ikastetxe).
- 15 GJH: Lurreko ekosistemak: basoak (99).
- 13 GJH: Ekintza klimatikoa (51).

GJHetara hurbiltzearen barruan, 2 GJH, osasuna eta ongizatea, landu dira, osasun-larrialdi globalaren testuinguruan. Era berean, biodibertsitatea eta pandemiak lotu dira 15 eta 16 GJHen bidez, IPBESen 2020ko urriko txostena (NBEaren Gobernu Arteko Panela, biodibertsitateari buruzkoa) eta klima-aldaketari buruzkoa, 13 GJH eta osasunari buruzko txostenetan oinarrituta, OSCCren (Osasunaren eta Klima Aldaketaren Behatokia) datuak erreferentziazat hartuta.

Zenbait zentrotan pandemiaren eta ingurumenaren aurreko prebentzio-eta zaintza-elementuen tratamenduari buruzko kanpainak egin dira. Hala, hondakinekin jarduteko protokoloak eguneratu dira (adibidez: pedal bidezko irekiera duten edukiontziak erabiltzea estalkiekin kutsatzea saihesteko, hondakinak birbanatzea, produktu desinfektatzaileak erabiltzea eta ingurumena errespetatzen duten garbiketa-produktuak erabiltzea, maskarak hondakin gisa hartzea –gomak moztuz eta elementuak edukiontzi egokietan bereiziz –).

Gainera, ikastetxe gehienetan (%80ko estimazioa) elikadura-ohiturak lantzen dira: gosari osasungarria, fruta egunak, eta abar. Egiaztatu da ikastetxeen %50ek baino gehiagok eskola-baratze ekologikoa dutela, baita duela urte batzuetatik Eskola Agenda garatzeko lanean ari diren Lanbide Heziketako ikastetxe askok ere.

⁵ 2003an Eskolako Agenda 21 programa jarri zen martxan, eta 2020-21 ikasturtean **Eskolako Agenda 2030**en txanda izan zen. Programa berritzailea eta erreferentea da iraunkortasunerako hezkuntzan; ikuspegi integral batetik lantzen du ingurumen-hezkuntza, hezkuntza-komunitate osoa biltzen du, eta udalerriko Tokiko 2030 Agendarekin koordinatuta dago. Programan parte hartzen duten ikasleen iraunkortasunerako gaitasuna eta irakasleen jasangarritasuneranzko hezkuntza-gaitasuna garatu nahi dira.

Ingurugelaren 2. jarduera-ildoan (irakasleen prestakuntza), honako ikastaro hauek eman dira aurreko puntuari adierazitako gaien inguruan:

Prestakuntza (bideokonferentziak ikasturtean zehar)	Irakasleak:.....	470
On line:	4	Irakasleak:..... 49
Ikastaro semi-presentzialak: ...	2	Irakasleak:..... 61

Ingurugelak antolatutako Ingurumen Hezkuntzako XXVIII. Topaketetarako, 30 ikastetxek aurkeztuko dituzte beren jarduera-proposamenak, lelo honekin: *Osasun larrialdiaren aurrean, ingurumen hezkuntza gehiago!*

3. jarduera-ildoan (Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa), bileren ordean bideokonferentziak egin dira, eta COVID-19aren aurrean jarduteko protokoloak ezarri dira ingurugeletan.

Bestalde, 8 institutuekin lanean ari gara CO2 neurgailuen esperientzia pilotu batean, ikasleek erabilitako espazioetan airea berritzeko adierazle gisa.

Gainera, Global Action Plan (GAP) programarekin lankidetzan ari gara. Nazioarteko erakunde-sare horren helburua da pertsonen bizi-baldintzak hobetzea, ingurumenean sortzen dugun inpaktua murriztuz. Eusko Jaurlaritzak eta aldundiek parte hartzen dute, besteak beste. Ikastetxeetako hezkuntza-komunitateekin lan egiten da (iaz 60 ikastetxe) uraren kontsumo arduratsuekin, mugikortasunarekin, erosketa jasangarriarekin, hondakinen kudeaketarekin, energia-kontsumoarekin, elikadurarekin eta abarrekin lotutako alderdietan. Aurten ere, pandemiaren testuinguruan, ikastetxeetako airearen kalitateari buruzko proiektu pilotu bat jarri da abian 6 ikastetxetan.

BESTE LANKIDETZA BATZUK

- Lankidetzaren Zaintza Epidemiologikoko Unitatearekin, Gipuzkoako Osasun Publikoko Zuzendariordearekin, Lehen Hezkuntzako ikasleen obesitatea aztertzearekin lotutako **Aladino Euskadi 2019 Proiektua** zabaltzeko.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lankidetzan aritzea **“Jangela osasungarriak”** programan.